



DEABRUEN DOINUAK BERRIRO ENTZUNGAI

Deabruak Teilatuetan talde tolosarrak '1973' disko berria kaleratu du, bederatzirteko isiltasunaren ostean >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2007-11-11

V.URTEA 1.285.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Dantzari Txiki, baina handiak

ALEGIA 200 dantzari baino gehiago aritu ziren dantzan, atzo, herriko kaleak alaituz, Dantzari Txiki Egunean

GAURKO EGITARAUA Azaro Kulturalaren baitan, barazki eta animalien azoka izango da gaur, herriko plazan 4-5



Erakustaldi bikainak eskaini zituzten atzo dantzari txikiek Alegian. NAIARA GARTZIA



Amasako jaien baitan, asto lasterketa egin zuten. ASIER IMAZ

Festa giroa izan dute nagusi bai jaietan bai eta Kultur Asteetan ere

TOLOSALDEA Amasan jaietan, eta Amezketan eta Berastegin Kultur Asteetan murgilduta daude 6

Irurako ikastolan materiala eta dirua lapurtu dutela salatu dute

IRURA 2 ordenagailu, 2 sakeleko telefono eta 600 euro eraman dituzte 5

Hiru autok elkar jo dute N-1 errepidean eta auto-ilara luzeak sortu dira

IRURA Irurako norabidean gertatu zen atzo goizean auto istripua 5

» **Uzturretik**

Ekain Garmendia

Lehengo batean, idatzi politiko bat pasa zidan lagun batek, bistazo bat eman niezaion zabaldu baino lehen. Gaztelaniaz zegoen idatzita, eta a-bilduz (arrobaz) be-

Arrobaren aurka manifestua

teta. Badakizue, ja estandar bilakatu da gaztelaniaz nosotr@s idaztea, edo ciudadan@s, modu maskulino inklusibo bat erabili ordez (apunte txiki bat: gauza kuriosoa da jendeak @ bere burua izendatzeko edo kontzeptu politiko positiboak idazteko bakarririk erabiltzea; ez dut uste inoiz ell@s edo violent@s idatzita ikusi dudunik). Arrobak paretik kenduko nituzke-

ela esan nion lagunari, eta idatziak, politikoa eta ezkeriarra bazen, femeninoz idatzita joan beharko lukeela (hau da, nosotras nosotros edo nosotr@s-en ordez).

Korrektzio politikoaz nazkatuta nago; pertsona on eta kontzientziatuak garelako frogatu behar hori erridikulu xamarra bada behintzat. Are gehiago, ezkerria eta korrekzioa bateraezina direla uste

du, ezkerrik kritikoa izan beharko du ezker izango bada, eta "kritikoa eta korrektoa" oxymoron hutsa iruditzen zait. Halere, egia da ezker politikoak feminista ere izan behar duela, eta ez dela gauza txarra helburu edo oinarri feministen arabera idatzera bat erabiltzea. Horregatik esaten nion lagunari kasu femeninoa erabil zezala, kritika politiko bat ebidente egiten

duelako korrektzio ñoñoetan erori gabe.

Halere, uste dut ez zidala kasurik egin, apustu egingo nuke azkenean testuko hitzek @ neutroz idatzita jarraitu zutela. Azken finean hauek guztiak ez dira txikieria hutsak baino izango, baina bueno, halako pitokeriekin betetzen dugu batzuk denbora. Ba hori, laburtuz, arrobaz obarioetaraino nagoela.

» **Asteko irudia**

HITZA berria gure artean da dagoeneko

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA • Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza berrituaren lehen aleak ostiral honetan ikusi du argia. Desberdina da, elementu gehiagorekin, berriekin, azken batean, modernoagoa. Baina azalak edo itxurak baino, garran-

tzi handiagoa du mamiak edo kazetaritza egiteko modu berriak. Herritarragoa, gertuago, azkarragoa izango da hementik aurrera, eta hor herritarrek izango dute zeresana; izan ere, webgunea ere berria da, eta elementu berriak ditu,

eta horien bidez, herritar orok izango du lekua eskualdeko egunkarian. Hitza berriaren aurkezpen ekitaldia ostegunean izan zen Errotan, eta bertan izan ziren udaletako nahiz gizarite eragileetako ordezkariak hainbat herritarrekin batera. A.I.

H Urteurrenak



I. urteurrena
JUAN ANTONIO AGIRRE UNANUE

'EGURTZE'

Joan zinan da gurekin zaude ulertzen zaila da sarri maiztasuna da izandakoen eta garenen lokarri

Bere emazteak

AZPETIA

Haren aldeko meza gaur, azaroak 11, 12:30ean egingo da Azpetiko parrokiari.



2007ko azaroaren 11

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Jendeari dagokionez, lasaitasuna izan da nagusi atzoko azokan

Tolosa » Eskaintzaren aldetik, barazki sortak, fruituak eta perretxikoak izan ziren aipatzekoak besteen artean

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen lehenengo orduetan. Eguzkia gora zihola eta lainoa desagertzen, giroa berotu egin zen, eta azkenengo ordutarako bizitasuna ikusi genuen mahaien artean.

Eskaintza aldetik, aipatzekoak izan ziren barazki sortak, fruituak eta perretxikoak; hauen artean onddoa, gibelurdina, ziza horia, nikalaoa eta nobedade bezela gamuza.

Berdura plazan ere eskaintza zabala ikusi genuen, eta apaingarriko landareen saltzaileen artean, lehenengo egunetako lanak eta gero, ez ziren atzo geldirik egon. Ziklamenak, azaleak, kameliak, edo eta aloe vera "nagusitu ziren mahaietan.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Landina	10,00	-
Krisantemoa	3,00	12,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Txinatar kraelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-
Lobelía	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Onddo	20,00	28,00
Garnuza	14,00	-
Gibelurdina	20,00	-
Ziza horia	20,00	-
Nikalao	15,00	-
Gaztaina	3,00	-
Errezil sagarra	1,50	-
Pikua	2,00	-
Matxakana	6,00	-
Babarrun zuria	6,00	8,00
Ibarrako piparrak	4,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Azenarioa	1,20	10,00
Kalabazina	0,72	-
Arrautzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-

Eztabaida info

Zer iruditzen zaizu HITZAK abiarazi duen kazetaritza egiteko modu berria?

■ **Ipek.** «Aldaketa hoberako izango dela iruditzen zait. Diseinu berria gustatu zait. Argiagoa edo txukunagoa dirudi. Eta internet eta papera lotzearena, berriz, ikusi egin behar, ea denok erantzuten dugun, eta HITZ Akoen asmoa betetzen den. Horrela izanez gero, egia da, benetan kazetaritza egiteko modu berria izango litzateke hau. Webgune berritua ere, diseinua aldetik, erakargarria, egia esan. Zorionak, eta animo!»

■ **Ainhoa Aranburu.** «Zorionak HITZA! Beharrezkoa zen aldaketa bat eta oso positiboa dela iruditzen zait, asko gustatu zait diseinu berria. Ea aurrerantzean ere gai in-teresgarriak jorratzen dituzuen.»

■ **Iñaki Agirre.** «Niri gustatu zait HITZA berriaren itxura. Egia esan berrikuntza guztiak izaten dira

onerako, eta kasu honetan ere hala iruditzen zait. Ea ba beste aldatetako ere nolakoak diren».

Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailearen aginduz Batasuneko kideak atxilotu dituzte. Zer iruditzen?

■ **Ainhoa.** «PSOEkin ekin dio ezagutzen duen bakarra egiteari, egurra. Eta egurra ez da soilik, harentzat zuretzat edo niretzat. Egurra guztion aurka darabil, Euskal Herriak izan nahi duen proiektuari dator- kio, besteak beste. Eta non ditugu, esaldiak botatzen dituzten alderdi horien erreakzio grina beste gaiekiko duten bezala, lurzoruan sartuz euren buruak... Herri honen eskubideen alde lanean ibili eta dabil- tzen bakarrik ezker abertzalekoak dira, besteen kon- frontazio keinuak ez baitira benetakoak».

Aitorpen mihiluzeak



» Iritzia

Kike Amonariz

HITZAKo adiskideek *Mihiluze*-ren inguruko xehetasu- nak azaltzeko eskatu didate, eta eskaera datorren lekutik etorritako ezin ukatu, gutxi izango baitira Euskal Herrian, halako mihiluze dentsitatea duten guneak. Hurrengo programak horren lekuko.

Duela ia 30 urteko pasadizo bat ekarriko dut gogora. Orduko eus- kara elkarte sortu berriaren bilere- tako batean Inauterietan buruz ari gi-

nen hizketan, garai hartan, karro- za eta konpartsa guztiak erabat er- daraz ari baitziren. Bilerako par- taide batek proposamena egin zuen: erdaraz ari ziren karroza guztien aurrean jarri behar ginen pankarta batekin eta protesta egin. Eztabaidan ordea, beste galdera hau sortu zen: gure artean ba al ze- gonen inor mikrofonoa hartu eta ka- rrozaren batean euskaraz egiten hasteko prest? Denak isilik geratu ginen.

Une hartan garbi ikusi nuen, ezin genielako besteek eskatu guk egingo ez genuena. Euskara beza- lako hizkuntza txiki eta menpera- tu bateko hiztunok, ezin genuela besteen zain egon, guk geuk hartu behar genuela inauterietan eta ondo- nren eskatu besteek. Horrela hasi gi- nen Inauterietan *numeroak* eus- karaz antolatzen. Gure lehen in- bertsioa bozgorailu bat erostea



182 bikote Mus Txapelketan

TOLOSA » Atzo Tolosako Beotibar Pilotalekuan VII. Mus Txapelketa Azka- rra ospatu zuten. Pilotalekua jendez gainezka egon zen txapelketak irau- n zituenez bospasei orduetan, izan ere, 182 izan ziren parte hartu zuten biko- teak, 364 jokalaririk alegia. Jokalariak ez ezik, hainbat mus zale hurbildu zi- ren pilotalekura. Txapelketa 22:00etan amaitu zen. **N.GARZIA**

sistemak bilatzen. Guretzat euska- ra ez da ez altxor, ez ondare, ez sin- bolo; bizitzeko, komunikatzeko eta gozatzeko tresna baizik.

izan zen, esaten genuena ahalik eta gehien entzun zedin.

Txiste-kontari ibili ginenean ere, maiz entzun behar izan ge- nuen txisteek euskaraz ez zutela graziarik edo harrigarria zela txis- teak euskaraz entzutea. Orduan- txex jabetu ginen erabileran eta errepikapenean zegoela gako- a. Jendeak zenbat eta txiste gehi- ago kontatu, sortu eta entzun euska- raz eta zenbat eta jende gehiago aritu, orduan eta ohikoagoa izango zela euskarazko umorea. Garbi zego- en, eta dago, oihartzun soziala lor- tzeke hedabideak ezinbestekoak zirela. Halaxe sortu zen *Txiskola*.

Hizkuntzarekiko eta bizitzare- kiko ikuspegi bertsuak bildu nin- duen Asisko Urmeneta eta Antton Olariagarekin. Urtetan ibili gara Euskara lardaxkatzen eta euskara- rekin dibertitzen. Euskal Herria- ren luze-zabalean ligatzeko edo iraintzeko erabiltzen diren formak ezagutzen, jasotzen eta proposa- tzen, (e)timologiak lantzen, esa- mesekin komunikatzeko bideak arakatzeko edo (in)komunikatzeko

Eta horixe da *Mihiluze*-ren oi- nartarian dagoena; hizkuntzarekin gozatzeko, komunikatzeko eta di- bertitzeko nahia. Argota eta berre- rabili daitezkeen tokian-tokiko hi- tzak bildu ditugu Tribuaren ber- teak euskaraz entzutea. Eskaintzen dituzten aukerez baliatu gara Po- tokumeetan; guk dakigula lehen al- diz bihurtu ditugu telebista-proba esamesen hizkera eta eroglifi- koak (ez euskaraz lehen aldiz, le- hen aldiz euskaraz baizik!). Oina- rri hori telebista-produktu bihurtu ahal izateko, berriz, *Mihiluze* egu- nero egiten duen lan-talde ezin profesionalago eta inplikatuagoa- ren funtsezko ekarpena dago.

Munduan zer dagoen boladan eta zer egiten den jakin, gure hi- zkuntzaren eta kulturaren baliabi- deak ondo aztertu eta konplexurik gabe, gizarte moderno bati eran- tzen nahi dion proposamena luza- tu. Horixe izan da jorratu dugun bidea, eta horixe da, gero eta ere- mu konpetitiboago batean, mihi- luzeokin konpartitu nahi dugun eskaintza. Ea luzerako den.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Mobilhome.** Nafarroan Mobil- home bat saltzen da, igerilekua amankomunean duen urbaniza- zioan. 943 11 73 43.

LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egi-

teko emakumea behar da, astele- henetik ostiralera, goizez bi orduz. Deitu 615 00 45 22 telefono zen- bakira.

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskal- duna bejar da bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 646 95 06 59.

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak euskaraz betetzea bermatzen dizugu

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin



- KONTABILITATEA
- ZERGAKE
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

Jarduna
administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

idealista.com
Ez pasa kasurik egin gabe
doako iragarkiak partikularrentzat

TXIKIENAK DANTZARI

Alegia » 200dik gora dantzari bildu ziren atzo Alegian Dantzari Txiki Eguna goiz osoan zehar ospatzeko asmoz

renean, 1000etan. Dantzari guztiak eskola txikietan elkartu ondoren, kalejari hasiera eman zioten eta Larraitz auzoan barrena hainbat dantza dantzatu zituzten.

Lehenengo kalejari

Txikiak aurrerik zirela, atzetik abiatu ziren dantzariak, plaza batuan lehenengo galkizaldi egin zuten arte. Bertan hainbat dantza eskaini zituzten Amasa-Villabona, Ikarregieta, Alto, Alegia, Irura, Ibarra, Anoceta eta Tolosa-Bediaiko dantzariak. Usurbilgo dantzariak ere bertan izan ziren. Lehenengo galkizaldi honetan dantzari talde bakoitzak dantza bat eskaini zien bertaratu zirenei, eta ez ziren gutxi. Ondoren, Kalejariarekin jar-



Eguberdiak, herriko plaza dantzariak eta jendea lepo zela, denek elkarrekin Agurra dantzatu zuten. NAHARA GARZIA

NAHARA GARZIA

Atzo Dantzari Txiki Eguna ospatu zuten Alegian goiz osoan zehar. Orotara eskuakiko 200 dantzari-
tik gora aritu ziren goiz osoan zehar Alegiako buzeterrak alaitzen. Herriko plazan amatu zuten bertaratu ziren talde guztien emansaldia.

Dantzariak, txikiak eta trikitilariak batera eskolatik abiatu zit-

Pintxoak-otartekoak-afete kombineiak-sandwichak-hamburgersok
 Kartxo menua-talderantz menuak-sagardotegiko menua

Usoel Kiroldojo
 Tolosa Tel.: 943 377573
 www.tolosadea.es

“Natura bezain eraginkorra”

PEUGEOT 308 berria

TOLOSA MOTOR, S.A.
 San Esteban auzoa, 14-A
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 05 03 37 Faxa: 943 05 29 38
 tolosa@tolosa.redpeugeot.com



Hainbat herritako dantzari txikiak parte hartu zuten atzo Alegian, eta tartoka abesten hartuzko aukera ere izan zuten, besteak beste dantzatzeko zuten bitartean. NAHARA GARZIA

tolosako BABARRU NAREN astea 07

Edizio jarraitua
 Blogak • Bideoak
 Agenda • Txokoa
 Merkatu txikia...

www.tolosadeko.hitza.info

Lapurreta egin dute Irurako ikastolan

Lapurreta » 2 ordenagailu eramangarri, 2 sakeleko telefono, proiektore bat eta dirua lapuratu dituzte, orotara 600 euro inguru

ERREDAKZIOA

Irurako ikastolatik azaldu dute, berenegun gauetan lapurreta eginera sartu ziren ikastolan. 2 or-

denagailu eramangarri, 2 sakeleko telefono eta proiektore bat eraman dituzte, guztiak berriak eta duela gutxi erosiak. Horretaz gain, dirua ere eraman zuten. Ikastolatik azaldu dutez lapurrek orotara 600 euro eraman zituzten.

Erantzuta lapurreta gertatu zen lekuan izan zen atzo goizean, ikertza egiten. Hala ere, Erantzutak jakitera eman duenez, oraingoz ikastolak salaketarik ez du jarri.

Hiru autok elkar jo dute N-1ean, obrak direla eta

Istripua » Atzo goizean izan zen istripua, N-1 ean, Irurako norabidean, ondorioz 2 kilometrotako auto-ilarak sortu ziren

ERREDAKZIOA

Atzo, 12:45etan istripua gertatu zen N-1ean, Tolosa eta Irura artean, Irungo norabidean. Erantzutak

jakitera eman duenez, 3 autok elkar jo zuten. Istripu honen ondorioz 2 lagun erietxeetara eraman zituzten. J.A.B.C. 41 urretako an-
doimadara Asuntzio klinikara eraman zuten eta J.M.A.B. 49 ur-
tetako beasindarra, Donostiako erietxera. Inguru horretan obrak egiten ari dira eta estaguine bat dago. Istripua dela eta bi kilometroko auto-ilarak sortu ziren.

POLICLÍNICA GIPUZKOA, ERREFERENTZI-PUNTUA.

Gure hirugarrenak berriak seke: abaragardak, zehatu medikoak, gaitarren errotasuna eta liguntza-erlata hobetu egingo dira. Berri ere, pasatu-aitan dagokionez, Policlínica Gipuzkoa erreferentzi-puntua da, bai Gipuzkoan, bai Euskadin ere.

9.000 m² gehiago
 IRURAKO GEHIAGO ALREBATUENETARAKO

INTEGRAZIOAN 12 ORDUZKO-OLA
 2 ERDITZE-LEKUAN, OBSTETRIKIA-UNITATE 1
 ZUBIA 14 BEKA
 ANESTESIA ORINO ENERKUPARRIRAKO 15 POSTU
 10 BELKAO EGUNEKO OPISTALEA

www.policlinicagipuzkoa.com

TEL.: 943 002 800



Amezketako Kultur Astearen barnean, atzokoan haurrak izan ziren protagonista. Irudian pailazo batekin jolasean. .A.I.

Kultur Astearen inguruko ekitaldiak Amezketan eta Berastegin San Martinetan



Onddoen inguruko hitzaldian Ibon Azpilikueta eta Orkatx Goenaga. A. IMAZ



Luis Mari Gartzia Artetxe omendua

TOLOSA Luis Mari Gartzia Artetxe musika irakasleari omenaldi hungigarrira eskaini zioten atzo eguerdian Eduardo Mokoroa musika eskolako irakasle eta ikasleek. Txistu, dultzaina eta akordeoi taldeak, abesbatza, Ikasleen Banda eta sorpresa gisa Arostegi anai-arrebak (Amaia, Enrique eta Joxean, bere ikasle izanak) aritu ziren bere doinuak irakasle erretiratu berriari eskaintzen, pantailan bere argazkiak ematen zituzten bitartean. Bukaeran, Luis Mari Gartzia bera jarri zuten pasodoblea eta la zarrak! Kalejira zuzentzen. . I. SAIZAR

Kultur Astea » Berastegin eta Amezketan Kultur Asteak ospatzen ari dira jolas, hitzaldi eta bazkari zein afariren artean

ASIER IMAZ

Berastegin eta Amezketan Kultur Asteak antolatu dituzte udazkeneko egunak alaitzeko. Atzokoan bezala, gaur ere zer ikusia eta zer egi-na egongo da bi herrietan.

Onddo artetik antzerkira

Berastegin onddo eta perretxikoen inguruan ibili zen atzoko eguna. Goizean haur eta gurasoak mendira irten ziren ea zer aurkitzen zuten ikustera. Itzuleran, Onddo eta perretxikoen inguruko hitzaldia eskaini zuen Ibon Azpilikueta, Aranzadiko kideak. 18:30etik aurrera, gaztain jatea ospatu zuten frontoian.

Gaurko San Martin Eguna, Meza eta ondorengo Maiatzak akordeoi orkestraren emanaldia-rekin hasiko dute. 15:30ean berriz, Mus Txapelketa herrikoia egongo da. Hortik aurrera, antzerkiaren txanda izango da. 17:00etan haurrei zuzendua eta 18:30ean helduagoentzat, *Lapur Zuloa* ikusteko aukera egongo da.

Herri bazkaria Amezketan

Atzo Amezketan Txikien Eguna ospatu zen Kultur Astearen barnean. Mendi martxa eta bazkariaren ondoren, pailazo eta helduak txiki-ekin batera elkartu eta jokoan ibili ziren.

Gaur berriz, 11:30ean Meza ospatuko dute ermitan. Hamaitaketa-koarekin Bixente Gorostidi eta trikitilariak ariko dira ondoren. Eguerdian azkenik, bazkaria egingo dute Behartzan.



Ikusleak mozorroturiko gidaria laguntzen, asto lasterketan. ASIER IMAZ

Jaietan, astoak eta mozorroak

Amasa » Gaur San Martin Eguna ospatuko dute amasarrek; bertsolari, trikitilari eta herri kirol erakustaldiarekin

A. IMAZ

Plazaren gainean, Elizatik tabernarako bidean aurkitzen da zintzilik eta ipurdia agerian duela Martina Sorgina. Amasako plazan gertatzen den guztia ikusten du astearteaz geroztik. Atzo urrutira joan gabe, asto larretketa ikusteko aukera izan zuen eguerdian. Mozorroturiko jinete edo gidariak, komeriak eduki zituzten hanka arteen zeramaten animalia nahi zuten lekura eramaterakoan.

Sua eta erreketak

Bien bitartean, Amasan sugarrak prest zeuden erreketarako. Sorgina Martinaren lasaitasunerako, ez zen bera izan sugarretan erre zutena amasarrek, txekorra baizik. Izan ere, 14:00etan txekor jatea egin zuten. Gauan berriz, bertsolariak eta Laiotz taldearen emanaldia egon zen.

Gaur, San Martin Eguna

San Martin Eguna ikustea tokatuko zaio gaur Sorgina Martinari.

10:30ean Meza Nagusia ospatuko da, garaiak aldatu diren arren, Sorgina elizan ikustea ez da erraza izango. Ondoren, zaldi proba egongo da bertsolari eta trikitilariekin. Arratsaldean berriz, Amasako gazteen artean herri kirol lehia antolatu dute 18:00etatik aurrera.

» EGITARAUA

Azaroak 11, gaur

- 10:30ean. Meza Nagusia.
- Ondoren. Zaldi proba. Bertsolari eta trikitilariak alaiturik.
- 18:00etan. Herri Kirolak herriko gazteen artean.

Azaroak 17, larunbata

- 11:00etan. Ume Krosa 6. mailara arteko haurrentzat.
- 18:00etan. Afizionatuen arteko eskuzko pilota partida. Iburguren Artola, Arretxe-Pinarren aurka.
- 23:30ean. DJ Festa.
- Goizaldean. Xabi Dantzaletako.

Azaroak 18, igandea

- 11:00etan. Amasako XV. Mendiatloia.
- 17:00etan. Joko Garbi partida.
- Ondoren. XVIII. Intxorren aldatzea eta Martina Sorginari agurrak.

2007a urte ona izaten ari da euskal musikarentzat; Anestesia eta Latzen taldeak, esaterako, taula gainera igotzen hasi dira berriro ere; gure eskualdeari dagokionez Deabruak Teilatueta talde tolosarreko kideek bederatzi urteko isilaldia apurtu dute

Deabruak martxan dira berriro ere



Bederatzi urtez ixilik egon eta gero, 1973 izeneko diskoarekin bueltan ditugu Deabruak Teilatueta. HITZA

«Oholtza gainera irten aurreko une horrek ez du parekorik»

ARITZ MENDIETA Deabruak Teilatueta taldeko abeslaria

Tolosa » Aritz Mendieta da taldeko abeslaria. Itzulera zertan den, eta disko berriaren xehetasunak azaldu ditu

H. BELLOSO

Deabruak berriz gure artean dira, eta itzulera zertan den azaldu du taldeko abeslaria den Aritz Mendieta (Tolosa, 1973).

Ze helburu dituzue itzulera honekin?

Ondo pasatzea. Plazer hutsagatik hasi ginen musika egiten, eta hori da helburu nagusi eta bakarra. Gure lehenetarikoa beste batzuk dira, gure ogibideak ez daude musikarekin lotuta, eta denbora pasa baina, pasioa dela esango nuke. Gauzak duintasunez egin, eta zuzenean ahalik eta era txukunean jotzea da guretzat garrantzitsuenak.

Geratzeko asmoak dituzue edo gure laburreko itzulera da?

Gure asmoa disko berria zuzenean aurkeztea da. 1973 diskoa azken hilabeteotako lanaren emaitza izan da, eta batez ere, zuzenean jotzeko aitzaki bat. Beraz, gure asmoak epe luzeak dira. Ahalik eta



HITZA

zuzeneko emanaldi gehien eman nahi ditugu datorren urtean.

Nola ikusten duzue taldean etapa berri hau?

Gogotsu eta ilusio handiarekin. Bada, gazteen artean batez ere, Deabruak Teilatueta zuzenean ikusi ez duenik. Horien erantzuna nolako izango den jakinmina piztu du gugan.

Nolako harrera espero duzue hainbeste urte jo gabe egon ondoren?

Mimo handiz prestatu dugu disko berria eta orain jendearen iritzia biltzeko irrikaz gaude.

Taldea hasi zeneko garaitik ze oroitzena duzue?

Ume batzuk besterik ez ginen taldearekin hasi ginenean. Zazpi urteko ibilbidean hiru disko eta 200 kontzertu egin genituen. Dena azkar pasa zela iruditzen zaigu orain. Nik uste jaialdien hasi aurreko une hori dela akaso politena. Laurok eskua eman eta oholtza gainera irten aurreko une horrek ez du parekorik.

Zein da zure ustez argitaratu duzuen diskorik hobereena?

Orain arteko egindako diskoekin oso pozik gaude. Ezingo nuke bat nabarmendu, disko bakoitzak bereizgarri zehatz batzuk dituelako. Beraz, zein da disko hobereena? Egiteko dagoena.

HARRIET BELLOSO

TeDuela bederatzi urte Deabruak Teilatueta taldekoak, lan eta ikasketa arrazoiak tarteko, bide ezberdinak hartuz behartuak ikusi ziren. Ala ere, «Gaztetxeak martxan» eta «Bonberenea» bildumetan parte hartu zuten nahiz eta taldea baztertua eduki. Urtarrilean aldiz taldea berriz biltzeko aukera eman zen. Entseiuak hasi orduko kanta berriak osatzen hasi ziren eta disko berri bat grabatzeko ideia izan zuten. Argitaratu gabe geratu ziren hiru abesti berreskuratu zituzten ere.

Lehenago itzultzeko proposamenak egon dira, baina taldeak argi zeukan betiko errepertorioarekin ez zuelabuelatu nahi. Kantu berriei aldiz, eszenatokietara itzultzeko gogotsu daude.

1973 disko berria

Urte horretan jaio ziren lau taldekideak. Orduetik hona izan diren gorabehera sozio-politikoak, diktaduraren amaiera, konpondu gabe jarraitzen duen gatazka politikoaren ondorioak, industriaren gainbehera eta punk-rock doinuen loraldia Euskal Herrian asko eragin asko izan dute taldean. Hamaika kantu berrietan gai asko lan-tzen dira: kezkak, bizipozak eta gogotak adibidez. Ironiaz beteriko kantua ere badaude. Letrak idazteko garaian lana banandu egin dute. Bakoitzak bere ideiak azaltzen zituen eta beranduago denon artean amaitzen zituzten kantua. Lehenago egin zuten bezala, Jose Luis Otamendiren poema bat mu-

sikatu dute. Oraingoan «Ez baleator inor» izenekoak izan da eta taldekideen iritziz «zalantzarik gabe disko letr ederrena» da.

Azken diskoa argitaratu zutenetik hamar urte pasa dira, baina taldea bere betiko soinua erekin jarraitu nahi izan du. Rock eta hardcore erritmoak, eta ironiaz beteriko kantua izango dira berriz nagusi disko berri honetan. Dena den, eboluzio bat egon dela esan daiteke, eta hori zenbait abestietan nabaritzen da. «Kontzertuetan eta grabazioetan asko ikasi» dutela aitortzen dute. Negu Gorriak, Kasha-bad, eta BAP bezalako euskal taldeak eragin asko izan dute taldearen, baita ingelesez abesten dutenak ere, Weezer, Nirvana, The Who eta Pearl Jam taldeak nabarmentzen dituzte.

Berriz batera lanean

Urte asko pasa dira, baina bizitza ez da geratu taldekide guztientzako. Ubeda anaiak Bide Ertzean taldean ibili dira, eta Gorka Urbizurekin (Berri Txarrak) Peiremans+ proiektuan parte hartu dute ere. Baina azken hilabeteotan jo eta su ibili dira Deabruak Teilatueta taldearen disko berrian. Tolosan eta Anoetan izan dira entseiuak eta hasieratik nahi zuten bezala Bonberenea zigiluarekin kaleratu dute diska. Beraientzako «oso pozgarria» izan da berriz elkartzea lanerako. «Disko bat grabatzea gauza oso serioa da eta estudioari sekulako errespetua» diote. Kaki Arkarazorekin lan egin dute berriz eta oso pozik geratu dira emaitzarekin.

Abenduaren 29an eszenatoki batera igoko dira berriz beraien abesti berriak aurkezteko. Tolosako Bonberenea gaztetxean izango da kontzertua gauko 22:30etan. 2008 ondo hasteko Hatortxu rock, Iruñan ospatzen den rock jaialdian izango dira. Berriz gure artean diren beste euskal talde batzuk bertan jo dute, Anestesia eta Etsiak adibidez. Apirilatik aurrera kontzertu gehiago emateko asmo daukate.

Oraingoz ez dute zuzeneko irratik grabatzeko asmorik, baina egitekotan «Ramonesek 1977an egin zuten zuzeneko diskoak litzateke eredu».

@ Zurea da hitza. Itxura berriarekin dator HITZA eskualdeko egunkaria. Itxura berriarekin baita ere bere webgunean, baina itxuraz gain, egunkarian bezala barrualdeko garrantzia berezia, izan ere, elementu berriez jositako datorrigu. Horren adibide da Zurea da hitza atala. Hemen, edozein irakurleki du sarbidea, eta berriak eta argazkiak sartzeko aukera eskaintzen du.

www.tolosaldeko-hitza.info



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Amezketak.** Kultur Astearen baitan, *Amnistiaren aldeko mugimenduen 30 urteak* DVD emanaldia izango da bihar ikusgai balionitzeko gelan.
- **Alegia.** Barazki eta Animalia Azoka izango da Alegian, Azaro Kulturaren baitan.
- **Alegia.** Argazki proiektio bat eskainiko dute bihar hasita Kultur Etxean. *Alegiako bizimodua* darma izenburuztat.
- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarteak Amurriora iteera antolatuko du hilaren 17rako, Gasteiz eta Zumaiara ere bisitatuz. Izen-ematea, elkarrean bertan egin daiteke. 26 euro (28 ez bazkideek) ordaindu beharko dira.
- **Tolosa.** Mendia eta naturaz argazki lehiaketa antolatuko du Oargi mendi elkarteak. Argazkiak Karlis argazki dendan entregatu behar dira hilaren 15erako. Sari ederrak izango dira irabazleentzat.
- **Tolosa.** Urdiña txiki elkarteak VI. Xake Saria izango da 09:30etik aurrera.
- **Tolosa.** *Autoritatea eta disziplina* hitzaldia emango du Jose Francisco Amiama psikopedagogoa bihar, Orixe Institutuan 18:30ean, DBH 1, 2 eta 3. mailako ikasleentz gurasoei zuzenduta dago hitzaldia.
- **Zizurkil.** Teodoro Hernandezena 6. Ipui Lehiaketa antolatuko du Zizurkilgo Udalak Aiztondo bailarako adin guztietako herritarrentzat. Azaroaren 30a izango da lanak entregatzeko epea. Aiztondo bailarako udaletxeetan utzi ahaliko dira.

Jaiak eta Kultur Asteak

- **Amasa.** San Martin Eguna: 10:30ean meza; zaldi karrera bertsoari eta trikitalariekin; eta 18:00etan herri kirolak Amasako gazteen artean.
- **Berastegi.** Kultur Astearen baitan, 12:00etako mezaren ondoren, Maiatzak akordeo orkestraren kontzertua izango da San Martin Parrokiari; 15:30etan mus txapelketa herrikoia Basurde Elkartearen; 17:00etan *Asto bat hipodromoan* haurrentzako antzerki emanaldia eskolan eta 18:30ean *Lapur zuloa* antzezlanak.
- **Amezketak.** Kultur Astearen baitan, meza izango da San Martin ermitan 11:30ean; hamaiketako eta bertsoari eta Lizarra anaiak trikitalariak; 14:00etan bazkaria Behartzanan.
- **Baliarrain.** Kultur Elejira: Arkaitz

Irurako Kilometroak 2008, gertuak

IRURA Atzo Irurako frontoian Kilometroak 2008ren aurkezpen jaialdia egin zuten 18:00etatik aurrera. Aurrena ume jolasak egin zituzten eta 19:45etan Aitor Mendiluze eta Anjel Mari Peñagarikano bertsoariak bertsoan aritu ziren. 20:00etan txupinazoa bota zuten eta ondoren, urdaiazpikoaren mozketarekin batera barrikoteari hasiera eman zioten. Denek elkarrekin afaldu zuten bakoitzak etxetik eramandako afariarekin, eta afaldu ondoren jaiak jarraitu zuten, bertsoariarekin, urdaiazpikoaren zozketarekin eta Erromeria trikitalariekin. A. IMAZ

elkarteak antolatutako talo eta gaztain jatea 14:00etan eta *Bota patsa* antzezlanak 18:00etan.

Erakusketa

- **Berastegi.** Berastegiko Gaztainondo Elkartearen, onddoen erakusketa izango da ikusgai, Lizarrusti Parkeko kideen eskutik, 16:30etik 20:00etara. Larunbata eta igandean 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara egongo da irekita.
- **Alegia.** Eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai egongo da bihurtur aurrera Kultur Etxean.

Zinema

- **Tolosa.** *Erase una vez... un cuento al revés* gaztekoentzako filma izango da ikusgai, 17:00etan Leidor aretoan.
- **Tolosa.** *Sin reservas* filma, Leidorren, 19:30ean. Bihar, ikuslearen eguna, 20:30ean izango da.
- **Tolosa.** *Café solo o con ellas* filma Bonbereneako zine klubean 17:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, JM. Gernika-Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Leitza.** Plaza, MT. Elbarren, 36. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritzien erantzunik.



hitza

aren eskutik
PIRRITX eta PORROT
PANPINAK
eta **DVDa etxeko txikiek jolasteko**



"Mari Motots"
ikuskitzaren DVDa
18€



Pirritx eta Porrotx
(motxila opari)
40€



Pirritx
(poltza opari)
20€



Porrotx
(poltza opari)
20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01

hitza